

**EBAZPEN AZKARREKO UNITATEA. PAZIENTEARENTZAKO ETA SENIDEENTZAKO
INFORMAZIO-ORRIA**

Osakidetzako Barrualde-Galdakao Erakunde Sanitario Integratuaren baitako Psikiatria Zerbitzua Galdakao-Usansolo Ospitaleko bigarren solairuan dago.

Ebazpen azkarreko Unitatea Psikiatria Zerbitzuaren barruan dago, eta hiru ohe dauzka.

Pazienteak unitate horretara bideratuko dira larrialdietan balorazio medikoa egin ondoren, baldin eta psikiatrak erabakitzen badu zaintza intentsiboa, laburra eta etengabea behar duela, sintomatologia amaitu edo hobetu arte. Ebazpen azkarreko Unitateko egonaldiak ez dakar inola ere Psikiatrian ingresatzea.

Ebazpen azkarreko Unitateak tratamendu intentsiboa eskaintzen du, krisi-egoerak geldiarazteko eta pazienteak etxera itzultzea errazteko. Behaketa eta tratamendu intentsiboa nahikoa ez badira krisia arintzeko, Psikiatria Zerbitzuan ospitaleratuko da.

Pazienteak Ebazpen azkarreko Unitatean gelditzeko baldintzak hauexek dira:

- Ospitaleratzean, objektu pertsonalak (mugikorra, dirua, kreditu-txartelak...) eta arriskutsuak izan daitezkeen objektuak kendu egingo zaizkio pazienteari, segurtasuna uneoro zaintzeko.
- Telefono mugikorrik ez dagoenez, dei bat egitea baimenduko da (goizez edo arratsaldez) kanpoaldearekin harremanetan egoteko, bai bere telefono mugikorrarekin, bai Zerbitzuak horretarako daukan telefono batekin
- Ebazpen azkarreko Unitatean ospitaleratutako pazienteak ezin izango du bisitarik jaso, ez bada erreferentziako psikiatrak hala erabaki duela. Psikiatrak bisitak baimentzen baditu, goizez eta/edo arratsaldez egin ahal izango dira. Pertsona bakarra egongo da bisitaldian.
- Pazienteak logelan egon beharko du, pijama jantzita, Psikiatria Unitateko gainerako gunetara atera gabe.
- Ezin da erre.
- Garbiketa eta otorduak pazientearen gelan egingo dira, bai eta dagozkion sendagaiak eman ere

UNIDAD DE ALTA RESOLUCIÓN. HOJA INFORMATIVA PACIENTE Y FAMILIA

El Servicio de Psiquiatría está ubicado en la segunda planta del Hospital Galdakao-Usansolo, centro perteneciente a la organización Sanitaria Integrada Barrualde-Galdakao.

La Unidad de Alta Resolución (UAR), está situada dentro del Servicio de Psiquiatría, ocupando tres camas del mismo.

Los/as pacientes serán derivados a esta unidad tras valoración médica en urgencias, cuando el/la psiquiatra determine que precisa de una vigilancia intensiva, breve y continua, a la espera de que la sintomatología cese o mejore. En ningún caso la estancia en la UAR supone un ingreso en Psiquiatría.

La UAR ofrece un tratamiento de manera intensiva que pretende frenar las situaciones de crisis y facilitar el retorno al domicilio de los/as pacientes. Si la observación y el tratamiento intensivo no son suficientes para mitigar la crisis, se procederá al ingreso en hospitalización del Servicio de Psiquiatría.

Las condiciones de permanencia en la UAR para los/as pacientes son las siguiente:

- Al ingreso se retirarán los objetos personales para su guarda y custodia (móvil, dinero, tarjetas de crédito...) así como los objetos potencialmente peligrosos, para que la seguridad prevalezca en todo momento.
- Al no disponer de teléfono móvil, se facilitará hacer una llamada (mañana o tarde) para mantener el contacto con el exterior, bien con su propio teléfono móvil o con un teléfono del Servicio destinado a ello.
- El/la paciente ingresado/a en la UAR no podrá recibir visitas, a menos que el/la psiquiatra referente así lo determine. En caso de que el/la psiquiatra autorice las visitas, éstas podrán ser en horario de mañana y/o tarde. Sera una visita de una sola persona.
- Deberá permanecer en la habitación, en pijama, sin salir al resto de espacios comunes de la Unidad de Psiquiatría.
- No está permitido fumar.
- El aseo y las comidas, así como la administración de medicación correspondiente, se realizarán en la habitación del/de la paciente.